



ZORTZI URRATS ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK (ETE) ETA PROFESIONALAK DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRERA EGOKITZEKO

Europar Batasuneko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean Erregelamendu Orokorra) 2016ko maiatzean sartu zen indarrean, baina 2018ko maiatzaren 25etik aurrera nahitaez ezarri beharrekoa izango da; eta, beraz, egun horretarako tratamenduen arduradun eta eragile guztiek Erregelamenduko aurreikuspenetara egokituta egon beharko dute.

Enpresa ertain eta txikiei, profesionali eta autonomoei datuak babesteko **tratamenduen arduradunak edo eragileak** izatea egokitzen zaie, haien jarduerak aurrera eramaten dituztenean. Horrek esan nahi du Erregelamendu Orokorrak eragina izango duela haiengan.

Berez Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB) **euskal esparru publikoko tratamendu-arduradunen** (eta horien tratamendu-eragileen) **gaineko “Kontrol agintaritza” da**; baina, esparru pribatuko tratamendu arduradunentzako eta eragileentzako zenbait jarraibide ere eskaini nahi ditu laguntzeko asmoz, eta *Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren* (AEPD) irizpidea kontuan hartuz, bera baita esparru pribatuan **eskumena duen kontrol agintaritza**. Informazio gehiago eskuratzeko, AEPDren web-orrira jo dezakezue:

<http://www.agpd.es/>

Informazioa eskuragarri dago “Arduradunaren kanalean” eta web-orrian argitaratutako gida eta argitalpenetan. Bereziki gomendagarria da honako hau: **“Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren Gida, tratamenduaren arduradunentzat”**. Datuak Babesteko hiru kontrol agintaritzen artean egin dute (AEPD, APDCAT eta DBEB), eta URL honetatik jaitsi daiteke:

http://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/guiaGPDpararesponsablestratamiento-eu.pdf

Horrez gain, oso baliagarria izan daiteke AEPDk honako URL honetan jarri duen **“Facilita_RGPD”** delako tresna;

<http://www.servicios.agpd.es/Facilita> (Gaztelaniaz)

Labur esateko, Erregelamendu Orokorrak enpresa txiki eta ertainetan, profesionalengan eta autonomoengan duen eragina honako **zortzi punturen** bidez adieraz daiteke, eginkizun hauek ezartzen baitizkie:

1 Argitzea ea Datuak Babesteko Ordezkarria (DBO) behar duten

Erregelamendu Orokorrak dio zein kasutan egon beharko den enpresetan **datuak babesteko ordezkarria** (DBO), enpresa guztiek ez dutelako DBOrik behar. Edozelan ere, nahitaez eduki beharko dute bat enpresaren jarduera nagusien artean honako jarduerak badaude:

- tratamenduaren izaera, irismena edo helburuak direla-eta, interesdunen **eskala handiko “ohiko behaketa sistematiko** bat eskatzen duten eragiketak, edo
- **kategoria berezietako datu pertsonalen eskala handiko** tratamenduak:
 - arraza edo jatorri etnikoari, iritzi politikoari, pentsamolde erlijioso zein filosofikoari edo sindikatu-afiliazioari buruzko datuak
 - datu genetikoak, biometrikoak, osasunekoak eta bizitza sexualari edo sexu-orientazioari buruzko datuak

Era berean, agintaritza edo erakunde publikoek egindako tratamenduak eta kondena eta arau-hauste penalei buruzko tratamenduak daudenean, beharko da datuak babesteko ordezkarria.

Kasu guzti horietan tratamenduaren arduradunek edo eragileek datuak babesteko ordezkarri bat izendatu beharko dute, Erregelamendu Orokorrak adierazitako kokapen eta eginkizunekin.

Zure kasua ez bada horietako bat, ez duzu izendatu behar datuak babesteko ordezkaririk.



Informazio gehiago behar izanez gero, AEPDren web-orrira jo dezakezu eta URL honetan sartu:

<http://www.agpd.es/blog/que-es-un-delegado-de-proteccion-de-datos-ides-idPhp.php> (Gaztelaniaz)

2 Tratamendu-jardueren Barne Erregistro bat Kudeatzea

Erregelamendu Orokorrek hainbat berrikuntza ekarri ditu, eta aipagarrienetakoa da praktikan desagertu egiten dela **fitxategiak edo tratamenduak kontrol agintaritzetan erregistratzeko betebeharra**.

Baina, beste aldaketa bat ere ekarri du, eta aurrerantzean nahitaezkoa izango da **“Tratamendu-jardueren barne erregistroa”** kudeatzea, baldin eta enpresek honako **baldintzetakoren bat** betetzen badute:

- Bertan **250 pertsona baino gehiagok** lan egitea.
- Egiten dituzten tratamenduak **noizbehinkakoak** ez izatea.
- Egiten dituzten tratamenduak **arriskuak ekar baditzakete** interesdunen eskubide eta askatasunetarako.
- Tratamenduak egiten badituzte aipatu ditugun **datu pertsonalen kategoria berezietan**.

Labur esateko, **noizbehinkakoak** ez diren tratamenduak (hau da, behaketa sistematiko bat eskatzen dutenak badira), fitxategi edo tratamenduen barne erregistroa kudeatu beharko dute.

Erregelamendu Orokorrek xedatuta dakar erregistroaren gutxieneko edukia, bai tratamenduaren arduradunentzat bai eragileentzat. Erregistroa antolatzeke, lehendik dauden fitxategien jakinarazpen bidez emandako informazioa erabil daiteke. Horrekin lotuta, AEPDk funtzionalitate berri bat iragarri du, laguntzeko tratamenduaren arduraduneri Agentziaren egoitza elektronikotik jaisten fitxategien egungo inskripzioen kopia URL honetatik:

<https://sedeagpd.gob.es/sede-electronica-web/vistas/formCopiaContenido/copiaContenido.jsf>
(Gaztelaniaz)

3 Tratamenduen legitimazioa berrikustea

Erregelamendu Orokorrek eskatzen du argi adierazi behar direla zein helburu eta lege-oinarri duten egingo diren tratamenduek. Izaera pribatuko tratamendu-arduradunak badira, lege-oinarria honako hauetakoren bat izan ohi da:

- Interesdunaren **adostasuna**.
- Interesdunarekin **kontratu** edo aurrekontratu bat edukitzea.
- Tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion **lege-eginbeharren** bat egotea.

(Badira beste legitimazio kasu batzuk Erregelamendu Orokorren 6. artikuluan)

Tratamenduaren oinarria adostasuna bada, gogoan eduki behar da orain baldintza gehiago bete behar direla adostasuna eskuratzeko (borondate-adierazpen askea, zalantzarik gabea eta zehatza izateaz gain, egintza positibo argi batez egin beharko da). Horrek esan nahi du **isilbidezko adostasuna (tazittoa) baliogabetu egiten dela**, hau da, ez duela balio interesdunaren berariazko ez-egiteren batean oinarritutako adostasunak.

4 Interesduneri ematen zaien informazioa berrikustea

Berrikusi egin beharko da interesduneri ematen zaien informazioa (adibidez, web inprimakietan edo paperezkoetan edo hirugarrenen inprimakietan), indartu egin delako interesdunekiko gardentasuna, eta orain lehen baino informazio gehiago eman behar zaie.

Argibide gehiago eskuratzeko, oso lagungarria izan daiteke **“Informatzeko Eginbeharra Betetzeko Gida”**. Datuak Babesteko hiru kontrol agintaritzen artean egin dute (AEPD, APDCAT eta DBEB), eta URL honetatik jaitsi daiteke:

http://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/modeloclausulainformativa-eu.pdf



5 Eskubideak egikaritzeko prozedurak berrikustea

Erregelamendu Orokorrak mantendu eta zabaldu egin ditu lehendik zetozen “*datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideak*”, eta tratamenduen arduradunek eta eragileek honakoak hartu beharko dituzte kontuan:

- Eskubideak egikaritzeko, bitarteko eskuragarriak, irisgarriak eta errazak ezartzea, baliabide elektronikoak barne.
- Interesdunei Erregelamendu Orokorrak **ezarritako epeetan** erantzun ahal izateko prozedurak ezartzea.

6 Tratamendu-eragileekin dauzkaten kontratuak berrikustea

Erregelamendu Orokorrak indartu egin ditu tratamendu-eragileekin kontratuak sinatzeko baldintzak. Hona:

- Erregelamendu Orokorrak dio arduradunen eta eragileen arteko harremana formalizatu egin beharko dela **kontratu edo egintza juridiko** baten bidez, zeinak eragilea arduradunarekin lotuko baitu. Eta horrez gain, zera dio:
- Tratamenduaren arduradunak kontu handiz aukeratu eta gainbegiratu behar dituela tratamendu-eragileak, eta Erregelamenduak xedatutakoa betetzeko gaitasuna duten tratamendu-eragileak baino ez direla kontratatuko.
- Jadanik izenpetuta dauden **enkargu kontratuak** berrikusi egin beharko direla, Erregelamenduak ezarritako gutxieneko edukietara egokitzeko.

Argibide gehiago eskuratzeko, oso lagungarria izan daiteke “*Tratamenduaren arduradunen eta eragileen arteko kontratuak egiteko jarraibideak*”. Datuak Babesteko hiru kontrol agintaritzen artean egin dute (AEPD, APDCAT eta DBEB), eta URL honetatik jaitsi daiteke:

http://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/directricescontratos-eu.pdf

7 Segurtasun neurriak berrikustea, arriskuen gaineko azterketa gehituz

Orain arte, segurtasun neurriak argi zehaztuta zeuden DBLO garatzen duen Erregelamenduan (1720/2007 errege Dekretua), eta hiru maila bereziten ziren (Oinarritzakoa, ertaina eta goi-mailakoa). Erregelamendu Orokorrak, ordea, ez du zehazten zein diren segurtasun neurriak; baina, beste hau xedatzen du:

“Tratamenduaren arduradunak eta eragileak, kontuan hartuta eskura dagoen puntako teknologia eta aplikazioaren kostua, bai eta tratamenduaren nolakotasuna, eremua, testuingurua eta helburuak ere, eta halaber pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako tratamenduak izan ditzakeen askotariko probabilitate eta larritasun-mailako arriskuak, arrisku horri aurre egiteko adinako arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko dituzte.”

Horrek esan nahi du herritarren eskubide eta askatasunei buruzko **arriskuen gaineko azterketa** bat egin beharko dela egiten diren datu tratamendu guztietan, berrikusiz egun ezartzen ari diren **segurtasun neurriak**; eta, hala badagokio, osatu egingo dira, arrisku azterketan ikusitako aintzat hartuta.

Horrez gain, Erregelamendu Orokorrak datuen **segurtasunaren urraketak** kudeatu behar direla ere gehitu du, eta dagokion **kontrol agintaritzari jakinarazi** behar zaizkiola ukituen eskubide eta askatasunetarako arriskutsuak badira

Arriskuen gaineko azterketak egiteko hainbat metodologia daude. Gaiari buruzko informazio orokorra behar izanez gero, INCIBE-Zibersegurtasunerako Institutu Nazionalak egindako “**Arriskuen kudeaketa. Enpresarioentzako laguntza gida**”, kontsultatu eta jaitsi daiteke URL honetan:

https://www.incibe.es/extfrontinteco/img/File/empresas/guias/Guia_gestion_riesgos/quigestionriesgos.pdf
(Gaztelaniaz)



8 Eraginaren ebaluaziorik egin behar den zehaztea

Azkenik, Erregelamendu Orokorrak ***Datu Babesaren gaineko Eraginaren Ebaluazioak*** egin behar direla ere aurreikusten du, eta tratamendu berriak abian jarri aurretik egin behar direla dio, ia seguru bada tratamenduek ***arriku handia*** ekar diezaiuketela pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei. Erregelamendu Orokorrak, eraginaren ebaluazioa behar duten tratamendu-eragiketen zerrenda bat finkatzen du, eta aurreikusten du datuak babesteko agintaritzak nazionalak argitaratu egin beharko dituztela arriku handiko beste tratamendu batzuen zerrendak.

Mota horretako eraginaren ebaluazioak egiteko metodologiak berriazko espezializazioa eskatzen du. AEPD lanean ari da gida bat egiteko, eraginaren ebaluazioak egiten laguntzeko. Bien bitartean, 2014an argitaratutako ***“Datu pertsonalak babesteko esparruan inpaktua ebaluatzeko gidaliburua”*** kontsultatu daiteke URL honetan:

http://www.agpd.es/portalwebAGPD/canaldocumentacion/publicaciones/common/Guias/Guia_EIPD.pdf

(Gaztelaniaz)